



◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

“Diskoetxeek ministerioak dirudite”

El Drogas | Enrique Villarreal

Grabagailuarekin batera piztu da. Gustuko ditu fokuak. “Ikus nazatela!”.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Josu Santesteban

Utzidazu barrez lehertzen. Lehen diskoa Ramoncin-ekin grabatu zenuten.

Eta gaur bi planeta desberdinetan bizi gara! Oso ongi hitz egiten du, baina tertulianotzat daukat rockerotzat baino gehiago.

Hori multinazional batekin lan egitea bezain bekatu larria da!

Garenak gara ez dugulako hanka sartzeko beldurrik. Ez naiz sekula arduratu bizilagunak, hain jatorra izanda, ile motzarekin hobeto nengokeela esan izan didanean. Ilea moztu banu kontra-ko esango zidan, izorratzeagatik.

Ilea ez, baina kantik moztu dizkizute...

En nombre de Dios zentsuratu zigitenean, Poligrameko arduraduna laban-duelu batera desafiatu nuen. Tipoa poltsikoan neraman poltsa bezain zuri jarri zen.

Beste garai batzuk ziren.

Noan tokira noala, jendeak daukan guztira gomitatu nahi izaten nau, uste du desfasatuetan desfasatuen naizela. Baina orain ez naiz kontzertura burua azken tabernan zuela iristen zen hura.

Orain bere alabari gosaria prestatzera jaikitzen den aitatzoa zara.

Bizi izan naiz lurretik bost metrora, baina garrantzitsua da hankak lurtean jartzea, etxean egoten jakitea, oholtzatik kanpo egin behar dituzunak egitea.

Zer da ba artista bat oholtzatik kanpo?

Hemen hutsaren hurrengotzat gauzkate. Pentsa,

urtean 50 kontzertu emanda ere ezin dugu lan-gabeziarik kobratu!

A zer aurpegia! Musikaren industria krisian eta zu...

Oso zaila egiten zait pena sentitzea. Diskoetxeek ministerioak dirudite, nik ez dakit zer egiten duen hainbeste jendek!

Zuek egiten duzuen, bizi!

Kanpotik ikusita badirudi rock talde bat edatera, larrutara eta drogatzerara doala, baina ezagutzen ditudan talde guztiek lan, lan eta lan egiten dute. Kanta bat ez da bost minutuan egiten.

Espanian, bost minutu aski dira talde euskaldun bat karteletik kentzeko.

Ni adierazpen askatasunaren alde nago. Cope eta *La Razón* ere defendituko nituzke medio libre eta alternatiboak zapaldu eta eragotziko ez balira. Ez dut ulertzen zergatik egon behar dugun denok boterearen gustuekin ados.

Nik ulertzen ez dudana da nola eman diezaiokeen atxikimendua Elkarriri *No hay tregua* kantatzen duenak!

Hori ulertzea oso erraza da. Nik beti bakardadeari buruz idatzi izan dut, eta Elkarrri baino mugimendu bakartiagorik!

“... pero alguien debe tirar del gatillo...”

Hasieran seroren konfederazio baten letra ematen zuen, eta gaur “ETA-ETA-ETA-ETA” oihukatzen digute. Berdin kantatzen dugu baina ez da berdin jasotzen. ■